

Zornotza'ko gaugurtzailleak

(1906-1958)

Aurten auzdikiro ospatuko da garagarri-
Earen 12'tik amainagarreneko gaba, Iurtea
ospotuta aurretik egingo.

Zer dalatu jai onetik? Orain urte bi egin
beaz ziranak dira. Eleizea barriatzen
elisean orduan; orain apain eder dago elei-



zea. Eukaristi eleizakizunak egiteko be ero-
soago dago. Eta auzdiki egin beaz dabez.
eta merezi be bai aldaratan gure maitasu-
narren gau ta egun daukagu Jesus'ek.

Ain zuzen be, Karmeldarrak bai daukagu
zeikusai gau-gurtzailleak, Eukaristiagaz, eta
aldizkari onetan pozik ekingo dautsagu arlo
onetan.

Eukaristiarren irudi ederra daukagu Eli-
as'en auspeko ogian. Berrogei egun eta ga-

baz heste barik bizi izan zan, eta gaur
Oreb mendi gaillurrera eldu be. Eukaristi-
tiaren maitale gartsu ta abeslari berea, Te-
resa Deuna. Aldarako Jesus'eri begira igar-
roten ebanen gubak Gurutzeko Juan San-
tuak. Gela bedeinkatua, leio txiki batetik
alduraz alkatuten zan gela. Zerbait berr
Eukaristi maitasunaz urtuta ez eta egun
Juan Deuna! Egutero Jauna artu gura
ebillen Teresatxu Deuna. Ez eta zan, ba,
here biotza Eukaristi-aulki, ontzi edo kupa
bizi? Amargarten Pio Santuak Teresatxu-
ren ames eta Jesus'ek altaretan daukaten
gurariak irakurri ebazan Teresatxu-
ren zintza eta «Auxe bai dala gauza ederra
esan eta laster agindu eban egunerako ja-
nartza. Karmeldarra izan zan Paris'en le-
nengo gaugurtzailleak eratu ebazan.
1848'n. Judeotarra zan berau-Herman Co-
hen-gero Aldarako Jesus'en Agustin Ala-

ZORNOTZA'N.—Azkeneko berrogetama
urte onetan baiño askoz lenago ebanen
gaberdiari ardu bat gutxienez Jaunaren ar-
rean igaroten ebanak ba-ziran; LARREA-
KO KARMELDARRAK. 1876'tik gero bizi
be, euskaldun praillekiak bertan ari izan
dira ta gaberdiko otuak aldaraz aurrera
esaten diardue. Lau Gotzain eta Karmel-
darraren Nagusi bik eta sinbat karmeldar-
kumbeatu onetan aldarako Jesus'en maitasun-
az kiskaldu dabez euren biotzak.

GAUGURTZAILLEAN ERATZAILLEA
Baiña goazan arira. Zornotza'n orain ber-
rogetamabi urte, 1906'ko otsailaren 17'tan
asi zan. Nok asmau ta eratu! Askoren po-
gotan egoan ames gozoa zan, izan be, Je-
sus'eri gabetan lagundutea. Eratu ta egite
jarri ebana auxe dogu Inozente Ramirez
Garcia, Logroño'ko uritxo baten jaiotza, San
Vicente de la Sonsierra deritxonean. 1879'ko
abenduaren 28'n. Ume-umetatik eleizgaitza
egitea izan zan here asma. Ta aldiz aldiz
auspean baiño ezipazan be, txingar au bizi
bizirik euki eban. Amabi urtedun unetan
zala, Maria Biotz-Garbiaren semenkanan jaio

on. onen anai izateko ikasteak egiteko.
1882'n, Alagon'en —Zarago-
— an ebazan. Gero; baiña, abade izan
guraz daukagu ta Logroño'ko seminarioan
daragoio 1885'tik 1890'arte. Gudaritza egin
beaz, eta gero berak inoan lez «gurasoen
ezenki gutik eta abadeen eginbeurrak be-
tetako edorerik ez eukalako» heste ogibide
bat artu eban.

Ogibidez ez zan, ez, nasai bizi. Geien ba-
ren tres arazoetan ekin eutsan. Leneagoz,
Zabalintzarretta jaunak lagunduta, Espino-
de los Monteros'en orratzain, illeko 75
luzerleko alogeraz. La Robla'n asi ta jarrai-
e eban bost urtean, baiña ez beti leku ta
eginbeaz batean. Zeregin goitxoagoak euki
ebazan, zerbait geiago be irabazten ebala.

1900'n Bilbo'n daukagu «Eusko tren-
tan» edo «Ferrocarriales vascongados» etan.
1906'n Zornotza'n daukagu oindiuño be tren-
en zereginetan diarduala.

GAUGURTZAILLE.—Ezkondua zan Ino-
zente jaun au, Bilbo'n Juan Santuen elei-
zan Munilla'tar Maria Mercedes Ibañez Fer-
nandez eritxon neska on bategaz ezkondua.
Biok Bilbo'n gaugurtzaille egin ziran, bata
egille eta bestea izeneko. Lenengo urtean,
1904'n, agostutik asita bost gabetan egon
zan. Urtegoan barriaz, amaika bidar.

1906'aren asikera Zornotza'ratu ta laster
gauzak eratu ebazan Zornotza'n be gaugur-
tzailleak ipinteko, urrengo illean asi bai
ziran.

KARMELDAR. — Senar-emazte onetik
mundatik alde egin guraz ebizan aspaldi.
Bilbo'n bizi zirala, lenengo Aita Vilarino'
gaz eta gero Karmeldar Aita Gerardo'gaz,
euren arnoak aztertuten ebezan. Gauzak
ondo ta sakon aldatu ta Erroma'tik bai-
menak lorturik, senar-emazte onetik Kar-
meldar egitea ebatzi eban. Emaztea Cuen-
va'n, Toledo'n, 1906'ko abenduaren 28'n
sartu zan, senarrak 36 urte bete ebazan

egunean. Antxe 29 urte bizi izan zan. Se-
narra urrengo urtebarriako Cordoba'n dago
Karmeldarren artean.

Ona emen Inozente jauna Elias Anai
eginda. Profesa ondorez, abade ikasteak
barriatzen ta osotuteko Iruña'ra ekarri eban.
Uri onetan jauparitu zan eta Karmeldarren
elizan Merzedeko egunean lenengo meza
abestu.

Buru argikoa zalako Dublin, Alemania ta
Austria'ra bialdu eban izkuntzak ikasiaz
ango prailleki lagundu egioen. Europa'ko
lenengo gudaketea asi zanean, Erroma'runtz
etorrata atxilotu eban zelatari zalakoan.
Errabako zala ta aske itxi eban. Erroma'ko
Karmeldar Nagusiak gero Kolonia'ra bial-
du eban. 1915'n urtea da.

MIXIOLARI.—1918'n Uraba'ko mixio-
sailla euskaldun Karmeldarren ardurapean
ipini eban Aita Santuak. Lenen-lenengotik
Elias Aita mixiolari gartsu agertzen da. An-
go gaixo ta neke gorabera, beti alai ta lan-
gille ebillela diñauskue beragaz lanean ego-
zaak. Jaungoikoak oparo santutu gura eban
bere maitale sotsu ta otsein zintzo au, ta
urtez baiño gaxoz eta maitemienez ariñago
jota egoan, eta 1924'ko agostuaren emere-
tzian il zan. Kolonia'ko uria da Leiva,
Karmeldar monjak gau ta egun aldarako
Jesus'en aurrean dagoz. Antxe datza, alda-
ratik bertan, Inozente Ramirez Garcia, Al-
darako Jesus'en Maitalea, ZORNOTZA'ko
GAUGURTZAILLEEN ERATZAILLEA—
Karmeldar eginda ALDARAKO JESUS'EN
ELIAS ABA eritxona.

Zornotza'ko Gau-gurtzailleak, aurtengo jai
ospetsuetan ongille gutziaz eskarraz damo-
tsez, illai britiko atsedena opa dautse, biziaz
ta urrengokozi Aldarako Jesus'ganako maitasuna,
sarritan geugandutea, munduko al-
darak gurtzaillez inguratutea ta ZORNOTZA'
koa batez be maite-kedarrez usaindu-
tea.

LARREA, K. O.

